

# AISIALDIRAKO HEZITZAILE IKASTAROA

2015-2016 ikasturterako proposamena



**ikastolen**elkartea

# ESKOLAREN AURKEZPENA

AISIOLA, Ikastolen Elkartek bultzatutako aisialdiko eskola da. Bere helburua, aisialdiko hezitzaileak heztea da, Ikastolen Elkartek antolatzen dituen aisialdiko ekintzetarako: aisialdiko taldeak, udalekuak, eskolaz kanpoko ekintzak, jantokien dinamizazioa, kirola, tailerrak,...

AISIOLA Ikastolen Elkartearen idearioan oinarritzen da, hauek direlarik bere ildo nagusiak:

- Proiektu hezitzaile eta euskalduna da
- Aisialdian oinarritutako hezkuntza proiektua da
- Baloreetan oinarritutako proiektu hezitzaile integrala da
- Kalitatezko hezkuntza proiektua da

Honela, Ikastolen Elkarteko aisialdiko proiektu hezitzaileak are gehiago aberasteko atea zabaltzen dugu eta baita heziketa integralaren bidean pausu kualitatibo garrantzitsu bat emateko ere.

# ESKOLAREN HELBURUAK

- Euskalduna eta euskara lan hizkuntza izango duen aisialdiko heziketa ikastaroak sortzea
- Aisialdiko begirale eta zuzendariei heziketa integrala eskaintzea aisialdiko heziketaren bidez
- Umeen eta gazteen aisialdian eginiko lan hezitzaileari esker, heziketa integral horren transmisiorako mekanismoak eskaintzea
- Kalitatezko aisialdiko hezitzaileak izatea bai ezagutza teoriko eta praktikoen aldetik, baita garapen pertsonalaren aldetik ere
- Ikasleei, ikastolako proiektu hezitzaileari lotuta jarraitzeko parada ematea
- Ikastolak egun eta etorkizun batean aisialdian bultzatuko dituen ekintzetan, hezkuntzaren ikuspuntutik ikusten duen langile kualifikatuen gero eta behar handiagoa betetzea.
- Ikastoletan aisialdiko ekintzetarako proiektu berriak martxan jartzea

# HEZITZAILE IKASTAROA: ARLO PEDAGOGIKOA

## TREBAKUNTZA ATALAK

- Aldi teoriko-praktikoa (200 ordu):

Talde dinamika	Aisia eta astia	Heziketa astialdian
Begiraleen tipologia	Programazioa	Lehen sorospenak
Zeharkakoak	Hezkidetza	Euskal jolasak
Inguruaren azterketa	Euskara suspertzaile	Psikologia ebolutiboa
Sormena	Elkartegintza	Naturaren pedagogia

- Aldi praktikoa (120 ordu):
  - 12 eguneko ekintza intentsiboa edo 3 hilabeteko jarduera jarraitua
  - Ikasle bakoitzak egin behar dituen praktikei dagokionez Aisiola eskolak eta Eusko Jaurlaritzak jarritako epeen barruan egin beharko ditu.

# IKASTAROAREN HELBURUAK

## OROKORRAK

- Aisia euskaraz jantzi
- Hezitzaile gaiek aisialdi heziketaren planteamendu hezitzaile, pedagogiko eta metodologikoak ezagutzea
- Hezitzaile gaiek haur eta gazteei zuzendutako aisialdiko ekimenak aurrera ateratzeko eta talde zein elkarteak dinamizatzeko ezagupen teoriko eta baliabide praktikoak ezagutzea
- Begirale taldeetan garatzen den heziketa estiloa eta izaera bizitzea

## ZEHATZAK

- Heziketa kontzeptuaren inguruan hausnartzea.
- Hezitzaile izatearen arazoietan sakontzea.
- Astialdian zertarako hezten dugun hausnartzea.
- Ingurugiroak hezkuntzan duen garrantziaz jabetu.
- Pertsonaren eta bere ingurunearen arteko harremana aztertzea.
- Planifikazioaren elementuak ezagutzea.
- Astialdian psikologia ebolutiboak duen garrantziaz konturatzea.

# METODOLOGIA

Ikastaroan erabiliko liratekeen teknikak eta pedagogia baliabideak hauek lirateke:

- Hezkuntza aktiboa: motibazioa; bizipen sistematikoa; esperientziatik ikasi; ekintza-hausnarketa-ekintza;...
- Talde lanak
- Harreman interpertsonalak: ezagupena eta elkarbizitza.
- Azterketa eta hausnarketa: Norbere bizipenetan oinarritutako hausnarketak
- Tutoretzak: Informazioa; Banakako hurbilpena eta jarraipena; Etengabeko ebaluazioa.
- Banakako lanak
- Ekintza konplexu eta elkar-lotuak: helburuen lorpena eta arlo edo aspektu ezberdinak ekintza bakar batean jorratzea
- Heziketa prozesuko arduradunen eta hezitzaileen arteko koordinazioa.



# HEZITZAILEEN PERFILA

Hau da eskolako hezitzaileen perfil orokorra:

- Aisialdian formazioa (begirale zein zuzendari titulatuak) dutenak.
- Aisialdian esperientzi handia dutenak
- Hezkuntza alorrean eta soziologian diplomatuak eta lizentziatuak.
- Euskaldunak
- Gazteekiko harremanetan eta prestakuntzan esperientziadunak
- Talde bat dinamizatzeko gaitasuna



# AURREKONTUA

Ikastaroa egiteko ikasle bakoitzak ordaindu beharreko diru kopurua 405 eurokoa da ikastolako ikasleentzat, eta 450 eurokoa kanpokoentzat.





# HARREMANETARAKO

## **AISIOLA**

**Ikastolen aisialdiko eskola ·**

Aoiz plaza, 1-4 · 48015 · BILBO ·

Telefonoa: +34 94 435 43 40    Faxa: +34 94 435 43 41

[aisiola@ikastola.net](mailto:aisiola@ikastola.net)